



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 24an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako udaletxean, bi mila eta hogeiko urriaren hamahiruan, Mikel Arregi Urrutia Alkate jauna mahaiburu delarik, Ruben Alberdi Uranga, Nerea Odriozola Larrañaga eta Garikoitz Mendizabal Etxeberria korporakideak bildu dira.

Idazkari lanetan, Ander Cestona Unanue jauna, Udaleko Idazkari-Kontuhartzailea aritzen da.

### **1.- INSTANTZIAK.**

**1.1) M.D.k**, ostiraletan egiten den azokan arropa postua jartzeko udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da.

**1.2) I.I.k, S.E. S.A.U.ren izenean**, Arroa Beheko A1.3.3 partzelan duen nabea handitzeko obretako udal baimena eskatu du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.3) P.R.R.ek, A.L. S.L.ren izenean**, Arroa Beheko 30.poligonoko 55. partzelan mahatsa sartu eta txakoliña egiteko bodega bat eraikitzeke obretako udal baimena eskatzen du. Baimena ematea erabaki da, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

**1.4) J.Z.k**, San Juan Buruko Soroa izena duen sailean txabola bat egiteko udal baldintzak zein diren jakitea nahiko luke. Bordak 12 m<sup>2</sup> artekoa bada, krokis bat aurkeztuta nahikoa izango da.

**1.5) DPO I.A. SLPK, A.T.T. S.L.ren izenean**, 2020ko urtarrilaren 22an eskatu zitzaien dokumentazioa aurkezten du.

Aurkezturiko dokumentazioa aztertu ondoren, lanak hasi ahal izateko, baimeneko baldintzen lehen puntua betetzat ematen da.

**1.6) L.M.I.O.ak**, Toribio Altzaga 24an duen garaje aurrean kotxeek oztopo egiten dietela eta sarrera debekatzen dietela azaltzen du. Hori horrela, badoa jartzea eskatzen du. Toribio Altzaga kalea 24ko garajea badoa jartzea onartzea erabaki da.

**1.7) X.O.Z.ak**, Gazteleku inguruan zaborrontziak jartzea eskatzen du.

Gaztelekuko eremutik gertu badaude zaborrontziak, frontoian hain zuzen, eta Udalaren ustez nahikoak dira.

**1.8) S.E.R.k**, Gurutze Jubilatuen Tabernako almazen berrian argi punto bat jartzeko baimena eskatzen du. Brigadako lanen plangintzan barneratuko da eskaera hau.

**1.9) J.M.O.U.k**, Araneta erretegiaren ur hornidura sare publikotik jartzeko eskaera egiten du.

Onartzea eginiko eskaera. Udalak zehaztuko du ur hartunea non dagoen eta bertan jarriko litzateke ur kontagailua.

**1.10) A.O.G.ek,** Ariztondo plazako garajeetako pasabideei dagozkien zoruko seinaleak berriz pintatzeko eskatzen du. Brigadako lanen plangintzan barneratuko da eskaera hau.

**1.11) J.M.M.k,** kalearen izena eta atarien zenbakiak adierazten dituen plaka bat jartzea eskatzen du. Larrain kalean zenbakiak jarrita daudela jakinarazten da.

**1.12) G.M.U.k,** haurren parkeko lurra oso arriskutsu dagoela dio. Udalaren plangintzaren barruan dago hurrengo urtean haurren parkea berritzea.

**1.13) Alkateak adierazi du trafikoaren azterketaren azken bertsioa eskuratu eta martxan jarri beharko dela.**

Egoera honetan aurkezpen ireki bat egitea konplikatua izan arren, beharbada eragile batzuekin egingo litzateke.

## **2.- PERTSONALEKO GAIAK.**

**2.1) M.K.I.ek,** azaroaren 30etik abenduaren 4a bitartean opor egunak hartzea eskatu du.

Ez da onartzen opor egunen eskaera, urtean sartu beharreko orduetara oraindik ez baita iritsi.

## **3.- BATZORDE INFORMATIBOETAKO AKTAK.**

- 2020ko urriaren 13an Euskara, Hezkuntza eta Komunikazio Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko azaroaren 10ean Euskara, Hezkuntza eta Komunikazio Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 11n Gizarte Ongizate Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko irailaren 22an Sozio-ekonomia eta Herritarren Parte Hartzea Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.
- 2020ko urriaren 27an Sozio-ekonomia eta Herritarren Parte Hartzea Batzordeak eginiko bileraren akta onartzen da.

## **3.- ALKATEAREN EBAZPENAK.**

- 333 zk: I.R. garbitzailearen gaixotasun baja ordezkatzeko izendapena esleitzea A.E.O.ri.
- 334 zk: Gañetabidea 4ko Artiagain etxean egindako obren amaiera dela eta, ordaindutako gehiegizko zergaren itzulketa J.G.G.ri.
- 335 zk: B. jatetxeari legezketasun espediente irekitzea baimenik gabeko obrak egitearren.
- 336 zk: B. jatetxeari zehapen espediente irekitzea baimenik gabeko obrak egitearren.
- 337 zk: Udal jabetzako bidea edo pista erabilera bereziaren baimena A.G.A.ri.
- 338 zk: Programa onartzeko ebazpena. I.U. bitarteko funtzionario izendatuaz.

#### **4.- ELKARRERANTZUN OFIZIALAK.**

Ez dago elkarrerantzun ofizialik.

#### **5.- ERREGU ETA GALDERAK.**

Ez dago erregu edo galderarik.

Eta gai gehiago ez dagoenez, bukatutzat ematen da saioa eguerdiko 14:33ak direnean, nik neuk, Idazkariak, ziurtatzen dudalarik.

Ander Cestona Unanue  
Idazkaria,

O.e